



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 6a

15. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2017an jarritako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (14. or.).

## **Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2017an jarritako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2017an jarritako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2017an jarritako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (15. or.).
- II. Nafarroako Foru Komunitateko tokiko sektorearen barne-kontrolaren deskribapena (16. or.).
- II.1. Kontrola eta barne-fiskalizazioa (16. or.).
- II.2. Finantzen eta aurrekontuen arloko aholkularitza eta kudeaketa (17. or.).
- II.3. Kontabilitatea (17. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (18. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (19. or.).
- V. Alderdi orokorrak (21. or.).
  - V.1. Eskatutako informazioa igortzeko bete-beharra betetzea (21. or.).
  - V.2. Eragozpen-oharrik, eragozpen-oharren aurkako erabakirik, fiskalizaziorik gabeko espedienterik eta diru-sarreraren kudeaketan anomaliarik ez duten entitateak (21. or.).
  - V.3. Toki entitateen barne-kontrolako sistema (22. or.).
  - V.4. Aurrekontuen arloko txostenak (23. or.).
  - V.5. Egindako eragozpen-oharrak (23. or.).
  - V.6. Eragozpen-oharren aurkako erabakiak (24. or.).
  - V.7. Aldez aurreko fiskalizazioa egin gabe izapidetutako espedienteak (26. or.).
  - V.8. Diru-sarreraren arloko anomalia nagusiak (27. or.).
- 1. eranskina Informaziorik bidali ez duten toki entitateen zerrenda (28. or.).

## I. SARRERA

Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak Toki Ogasunei buruzko Legea aldatu zuen, eta ezarri zuen kontu-hartzailetzako organoak urtero Kontuen Auzitegiari igorriko dizkiola egindako eragozpen-oharren aurkakoak izanik ere toki entitateko buruak eta udalbatzaren osoko bilkurak eman dituen ebazpen eta hartu dituen erabaki guztiak, bai eta diru-sarreraren arloan detektatutako anomalia nagusien laburpena ere.

Halaber, aipatutako 27/2013 Legeak bigarren xedapen gehigarri bat erantsi zuen, non Foru Komunitateari arlo honetan aplikatzekoa zaion araubidea xedatzen baitu; hartan ezartzen da ezen, oinarriko araudia betez, Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzailetzako langileek informazio hori Kontuen Ganberari igorri behar diotela.

Nafarroako Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskumenen arabera, 2018. urterako laneko planean sartu zen 2017ko ekitaldiari buruzko honako alderdi hauen gaineko fiskalizazioa egitea:

- Barne-kontrolaren modalitateak eta edukia
- Kontu-hartzailetzak 2017an egindako eragozpen-oharrak.
- Eragozpen-oharren aurkakoak diren erabaki eta ebazpenak.
- Aldez aurreko fiskalizazioa egin gabe onetsitako espedienteak.
- Diru-sarreretarako anomaliak.
- Aurrekontuen arloko aurkako txostenak.

Fiskalizazio hau egiteko, Ganberak Nafarroako 272 udaletako eta 76 mankomunitate eta ohi-turazko elkarteetako Kontu-hartzailetzako langileei galdetegi bat igorri zien, non aurreko paragrafoan aipatutako alderdiei buruzko informazioa eskatzen baitzien. Baldin eta eragozpen-oharren aurkako erabaki edo ebazpenik hartu ez bada, edo aurreko fiskalizaziorik gabeko espedienterik ez badago, edo diru-sarreretan anomaliarik ez badago, ezezko ziurtagiri bat igorri beharko dute inguruabar hori adieraziz. Informazio-eskaera 2018ko apirilaren 16an egin zen, eta hari erantzuteko apirilaren 30era arteko epea eman zen. Geroztik, beste bi eskaera igorri zitzaizkien erantzuna bidali ez zutenei, eta uztailearen 31ra arteko epea eman zitzaien.

Lana egin da toki entitateek igorritako informazioaren azterketa orokor bat egin ondoren, eta auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak bost epigrafe dauzka, sarrera hau barne. Bigarrenean, barne-kontrolako sistema deskribatzen da, bai eta Kontu-hartzailetzak Foru Komunitatearen tokiko eremuan garatutako eginkizunak ere; hirugarrenean, txostenaren helburuak, norainokoa eta mugak aipatzen dira; laugarrenean, egindako lanetik eratorritako konklusio eta gomendioak aurkezten dira, eta bosgarren epigrafean, azkenik, jasotako informazioari buruzko alderi orokorrak zehazten dira. Eranskin bat ere gehitu da, zeinean informaziorik igorri ez duten edo hura modu osatu gabean aurkeztu duten toki entitateak aipatzen baitira.

Eskerrak ematen dizkiegu toki entitateetako Kontu-hartzailetza eta Idazkaritza zerbitzuetako langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO TOKIKO SEKTOREAREN BARNE-KONTROLAREN DESKRIBAPENA

Nafarroako Foru Komunitateko tokiko sektorearen aurrekontu-esparrua honako bi foru lege hauetan araututa dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

6/1990 Foru Legearen 234. artikulua Kontu-hartzailatza deskribatzen du, eta honako eduki hau duen funtzio publikoa betetzea dela dio:

- Kontrola eta barne-fiskalizazioa egitea.
- Ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko aholkularitza eta kudeaketa.
- Kontabilitatea.

### II.1. KONTROLA ETA BARNE-FISKALIZAZIOA

Kontrola eta barne-fiskalizazioa gauzatzen dira kontu-hartzailatzaren, finantzen kontroleko eginkizunaren eta eraginkortasunaren gaineko kontrolaren eginkizunaren bidez.

#### *Kontu-hartzailatzaren eginkizuna*

Kontu-hartzailatzaren eginkizuna soilik aplikatzen zaie zuzenbide administratiboaren mende-koak diren enteei –hau da, toki entitateari berari eta haren erakunde autonomoei–, eta ez zaie aplikatu behar zuzenbide pribatuaren mendeko ente instrumentalei (merkataritza-sozietateak eta fundazioak, kasu).

Kontu-hartzailatzaren eginkizunak helburu du honako hauek fiskalizatzea:

- Eduki ekonomikoa duten eskubide eta betebeharren edo gastuen aitortpena eta likidazioa dakarten egintza guztiak.
- Haietatik datozen kobrantzak eta ordainketak.
- Diru publikoen bilketa, inbertsioa eta, oro har, aplikazioa. Horren xedea da kudeaketa kasuan-kasuan aplikatzekoak diren xedapenei egokitzea.

Aipatutako edukiari eta norainokoari jarraituz, Kontu-hartzailatzaren eginkizuna legezkotasunaren kontrola egiteko modu bat da. Barne-izaera du eta prebentziokoa, eta hartan egiaztatzen da aplikatzeko den araudian ezarritako baldintza guztiak betetzen direla. Eginkizun hori honako hauetan aplikatzen da:

- Gastuen aurrekontuan, aginduzko izaerarekin, exekuzioaren fase guztietan eta gastu mota edo modalitate desberdinetan, jatorriaren arabera tasatutako kasuetan eta baldintza jakin batzuekin izan ezik –alde aurretiko fiskalizazioa egitetik salbuetsizat deklaraturak daudenak–.
- Diru-sarreraren aurrekontuan eta Osoko Bilkuraren erabakiz, aurreikusita dago eskubideen alde aurreko fiskalizazioaren ordezkortasuneko arrazoi-hartzea egitea; hori, halere, ez da eragozpena geroztiko egiaztatze-jarduketarako, laginketa- edo auditoretza-teknikak erabiliz.

Legezkotasunaren prebentzioko kontrolaren izaera dela eta, Kontu-hartzailatzari esleitzen zaio eragozpen-oharrak idatziz aurkezteko aukera, erabakia edo ebazpena egin aurretik. Eragozpen-oharrei dagokienez:

- Espedientearen izapidetzea eteteko izaera izanen dute esparru juridikoan berariaz tasatutako kasuetan.
- Kontu-hartzailatzak aurkeztutako desadostasunaren ebazpena toki entitateko buruari edo osoko bilkurari dagozkio, lege-esparruan aurreikusitako kasu desberdinen arabera.
- Toki entitateko lehendakariak eragozpen-oharren aurka hartu dituen ebazpen guztiak aurkeztuko dizkio organo kontu-hartzaileak osoko bilkurari, bai eta diru-sarreretan hauteman diren anomalia garrantzitsuenen laburpena ere.

Kontu-hartzaitzaren eginkizuna aldez aurretik gauzatzen da, eta fiskalizazioa legez eskatutako baldintza guztien egiaztapenera iristen da; edo, bestela, aldez aurreko modalitate mugatuaren arabera gauzatzen da, zeinean zenbait oinarritzko baldintza fiskalizatzen baitira –nagusiki organoa eskuduna baden eta kreditu egokia eta behar adinakoa badagoen, bai eta kudeaketa-prozesuan duten garrantziagatik Osoko Bilkurak erabakitzen dituen beste gai batzuk ere–. Azken kasu horretan, ordea, gero fiskalizazio oso bat egin beharko da, laginketaren edo auditoretzaren teknikak aplikatuz. Nafarroako Foru Komunitatean, aldez aurreko fiskalizazio mugatua soilik 50.000 biztanletik gorako populazioa duten udalerriek aplikatzen zaie.

Kontu-hartzaitzaren eginkizuna prebentiboa eta aginduzkoa denez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko araudian ez dago araututa aldez aurreko fiskalizazioa egin ez den kasuetako espedienteak izapidetzeko prozedura; Estatuan, ordea, Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa onetsi zuen 2017ko apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren bidez arautu zen hori.

#### *Kontrol finantzarioaren eginkizuna*

Helburu du toki entitateetako zerbitzuen, haien erakunde autonomoen eta haien menpeko merkataritza sozietateen alderdi ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendua egiaztatzea. Eginkizun horren bidez, epaitu behar da ea finantza arloko informazioaren aurkezpena egokia ote den, aplikatzekoak diren arau eta jarraibideak betetzen ote diren, eta zenbatekoa den aurreikusitako helburuen efizientzia maila.

Kontrol-modalitate hori auditoretza-prozeduren bitartez gauzatu beharra dago, Sektore Publikoaren auditoretza-arauen arabera, eta egindako kontrolaren emaitza gisa txosten idatzi bat egin beharko da, zeinean egindako azterketatik ondorioztatu diren oharpen eta konklusio guztiak jasoko baitira. Txostenak, auditoriaren xede izan den organoaren alegazioekin batera, Osoko Bilkurari bidaliko zaizkio, azter ditzan.

#### *Eraginkortasunaren gaineko kontrolaren eginkizuna*

Kontrol-mota honen helburua da aldizkakotasun jakin batez helburuak noraino bete diren egiaztatzea, bai eta zerbitzuen edo inbertsioen errendimenduaren eta funtzionamenduaren kostuaren azterketa egitea ere.

## II.2. FINANTZEN ETA AURREKONTUEN ARLOKO AHOLKULARITZA ETA KUDEAKETA

Eginkizun honek bere baitan hartzen du berariazko txostenak egitea, 6/1990 Foru Legearen 240. bis artikuluan araututakoak, aurrekontuaren eta kudeaketa ekonomikoaren alderdi batzuei buruz. Ez du izaera fiskalizatzailerik eta, horrenbestez, aurkako txostenak ematekotan, ez dira eteterako eragozpen-ohartzat hartzen.

## II.3. KONTABILITATEA

Kontu-hartzaitzak, halaber, toki entitatearen kontabilitate-eginkizuna du esleitua, salbu eta Iruñeko Udalaren kasuan; izan ere, azken horretan, probintziako hiriburua denez, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean populazio handiko udalentzat ezarritako antolamendu-araubidea aplikatzen da, eta, horrenbestez, fiskalizazio- eta kontabilitate-eginkizunak bereizita egon behar dute, eta kontabilitate-eginkizun hori organo bereiztu batek bete behar du.

Eginkizun horrek berekin dakar kontabilitatea eraman eta garatzea eta aurrekontuaren exekuzioaren jarraipena egitea, arau orokorreki eta Korporazioko Osoko Bilkurak ematen dituen arauak jarraituz.

Erakunde autonomoei eta merkataritza-sozietateei dagokienez, haien kontabilitatearen gaineko kontrol- eta gainbegiratze-eginkizunen bidez gauzatzen da, Osoko Bilkurak ezarritako prozedurei jarraituz.

Halaber, Kontu Orokorra egin edo osatu behar du.

### III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Honako hauek dira txosten honen helburuak, egindako eskaerari emandako erantzunetatik abiatuta:

- Kontuen Ganberari eragozpen-oharren aurkako erabakiei buruzko, aldez aurreko fiskalizazioa egin gabeko espedienteei buruzko eta diru-sarreraren anomalia nagusiei buruzko informazioa igortzeko betebeharra betetzen den egiaztatzea.
- Toki entitateetan aurrera eramaten den barne-kontrolaren modalitatea eta edukia egiaztatzea.
- Eragozpen-oharrak, eragozpen-oharren aurkako erabakiak, aldez aurreko fiskalizazioa egin gabeko espedienteak, diru-sarreraren arloko anomalia nagusiak eta aurrekontuei buruzko txostenak ekarri zituzten egoera eta arrazoi zehatzak zehaztea.
- Arrisku handiena dagoen arloak identifikatzea, kontu-hartzailetarako organoek igorritako informaziotik ateratzen direnak.

Informazioaren tratamendua modu orokorrean aztertu da, baina adierazi egin ditugu beren garrantziarengatik edo errepikatzen direlako nabarmentzekoak diren gaiak edo egoerak.

Lana egin da Kanpo Kontroleko erakundeek sektore publikoaren fiskalizaziorako ezarri dituzten eta ISSAI-ES arauetan jasota dauden oinarritzko printzipioekin bat, eta horien barruan sartu dira beharrezkotzat jo diren prozedura tekniko guztiak, lanaren inguruabarrei eta helburuari jarraituz.

Txostenak muga batzuk izan ditu, zeren eta 22 udalek, 12 mankomunitate eta ohiturazko elkartek ez baitute erantzunik bidali, eta 6 udalek eta mankomunitate batek osatu gabeko informazioa bidali baitute; horiek guztiak 1. eranskinean aipatu ditugu.

#### IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak aurkeztuko ditugu. Azalpen hau bi ikuspegitatik egingen da.

##### *Informazioa igortzeko betebeharrak*

- Inkesta igorri zitzaizen 348 toki entitateetatik, 307k erantzunak bidali dituzte: ehuneko 88ko betetze-maila da hori.

- Informazioa igorri duten entitateetatik, jasota dago ehuneko 88k ez duela eragozpen-oharrik egin; ehuneko 11k ez du eragozpen-oharren aurkako erabakirik hartu; ehuneko 97k ez du alde aurreko fiskalizaziorik gabeko espedienterik izapidetu, eta ehuneko 96an ez da diru-sarreretan anomaliarik aurkitu. Lau egoera horiek batera –hau da, eragozpen-oharrik ez, eragozpen-oharren aurkako erabakirik ez, alde aurreko fiskalizaziorik gabeko espedienterik izapidetu ez eta diru-sarreretan anomaliarik ez–, toki entitateen % 85ean gertatu dira.

##### *Barne-kontrolaren modalitateak eta edukia*

- Barne-kontrola, batez ere, kontu-hartzaitzaren eginkizunaren bitartez betetzen da, eta alde aurreko fiskalizazioaren bidez garatzen da; oro har, tokiko aurrekontu-esparruan eskatzen diren betetze- eta eduki-modalitateak jaso dira. Honako hauek, hain zuzen:

a) Izaera ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak edo balore nahiz funtsen mugimendua sor dezaketen egintza, agiri edo espediente ororen kontu-hartze kritiko edo aurretikoa egitea.

b) Ordain-aginduaren kontu-hartze formala.

c) Ordainketaren kontu-hartze materiala.

d) Inbertsioen eta diru-laguntzen aplikazioen kontu-hartze eta egiaztatze materiala.

- Aldez aurreko fiskalizazio mugatua Iruñeko Udalean baizik ez da betetzen, zeren eta bera baita 50.000 biztanletik gorako populazioa duen udal bakarra, Foru Komunitatearen tokiko aurrekontu-esparruan ezarritakoari jarraituz; eta fiskalizazio hori mugatu da egiaztatzerako aurrekontu-kreditu egokia badagoen eta gastua organo eskudunak proposatu duen. Beste gai batzuen fiskalizazioa ez da jaso, kudeaketa-prozesuan duten garrantzia dela-eta Osoko Bilkurak hala erabakita, aipatutako organoak erabakitakoak ez izateagatik.

- Inongo toki entitateetan ez dira kontrol finantzarioko eginkizunak betetzen, eta hori aurrekontu-esparruaren ez-betetze bat da. Bakarrik Iruñeko eta Tuterako udaletan betetzen da menpeko enteentzako gainerako eginkizun hori, baina ez toki entitateetan bertan, eta auditoretzako kanpoko enpresek egiten dute lan hori.

Foru Komunitatearen tokiko eremuan, ez dago barne-kontrolari buruzko araubide juridikoaren erregelamendu bidezko garapenik; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eremuko Kontu-hartzaitzarako edo berariaz estatuko tokiko sektorerako, ordea, araututa dago hori.

##### *Egindako eragozpen-oharrak*

- 38 toki entitateetan aurkeztu dira eragozpen-oharrak: inkestak bete dituzten entitateen ehuneko 12 dira. Guztira, 154 eragozpen-ohar aurkeztu dira, 8,14 milioi euro egiten dutenak; eragozpen-oharrak 10.000 biztanletik beherako populazioa duten udaletan biltzen dira gehien bat, nagusiki 5.000 eta 10.000 biztanle bitarte dituztenetan.

- Nabarmentzekoa da, batetik, 154 eragozpen-oharretatik ehuneko 50 bost entitatek egin dituztela, eta gainerako 50a, berriz, 33 entitatek; bestetik, nabarmentzekoa da 20.000 biztanletik gora dituzten hiru toki entitateetatik entitate batean ez dela inongo eragozpen-oharrik egin, beste batean eragozpen-ohar bakarra egin dela eta azkeneko entitatean, berriz, 17 eragozpen-ohar aurkeztu direla.

- Mankomunitateetan aurkeztu diren eragozpen-oharren kopurua eta diru-zenbatekoa ez da aipatzeko modukoa toki entitate guztietan, zeren eta soil-soilik aurkeztutako eragozpen-ohar guztien ehuneko bat eta diru-zenbatekoaren ehuneko 0,02 baitira.

- Egindako eragozpen-oharren arrazoi nagusia espedienteen funtsezko baldintza edo izapideak falta izatea izan da –eragozpen-oharren guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko 58 dira–; ondotik, kreditu nahikorik ez egoteagatik egindakoak datoz, ehuneko 28 egin zutenak.

- Kontratazioaren arloa izan zen eragozpen-oharren diru-zenbateko eta kopuru handienak izan zituena, eragozpen-oharren guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko 82 egin baitzuten.

#### *Eragozpen-oharren aurkako erabakiak*

- 8,14 milioi egiten duten 154 eragozpen-oharrak direla eta, eragozpen-oharren aurkako 121 erabaki hartu dira, 4,08 milioi euro egiten dutenak: eragozpen-oharren kopuruaren ehuneko 79 eta guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko 50 dira. Bereziki nabarmentzekoa da kasuen ehuneko 95ean aurkako erabakien arrazoia kreditu nahikoa ez izatean oinarritutako eragozpen-oharrak izan direla.

Gainerakoetan, hau da, 33 eragozpen-oharretan, ez da aurkako erabakirik hartu; horrek esan nahi du kasuko organo eskudunak bete egin dituela Kontu-hartzaitzak egindako eragozpen-oharren ehuneko 21.

- 5.000 biztanlera bitarteko populazio-tartea da egindako eragozpen-oharren aurkako erabakien kopuru eta zenbateko handiena biltzen duena.

#### *Aldez aurreko fiskalizazioa egin gabeko espedienteak, diru-sarreretako anomaliak eta aurrekontu-arloko aurkako txostenak*

- Aldez aurreko fiskalizazioa egin gabeko espedienteen izapidetzea ez da nabarmentzekoa, zeren eta ehuneko bi baita, ez eta Kontu-hartzaitzak agerian jarritako diru-sarreretako anomaliak ere, zeren eta toki entitateen ehuneko bostek informatu baititu.

- Toki entitateen ehuneko 10ean aurrekontuen onespeneraren, aurrekontu-aldaketen, aurrekontuaren likidazioaren eta aurrekontuaren egonkortasunaren aurkako txostenak egin dira. Portzentaje horretatik, ehuneko 57 eman dira 1.000 biztanletik beherako populazioa duten udaletan. Aurrekontu-egonkortasunarena da aurkako txosten gehien dakarren arloa, ehuneko 47 baitira.

Hori guztia dela eta, hona gure gomendioak:

- *Iruñeko Udalaren kasuan, aldez aurreko fiskalizazio mugatua osatzea Osoko Bilkurak, kudeaketan duten garrantziagatik, fiskalizatzea erabakitzen dituen beste alderdi batzuekin, eta fiskalizazio mugatuaren peko gastuak direla-eta geroztik fiskalizazio osoa egitea.*

- *Tokiko aurrekontu-esparruan eskatutako kontrol finantzarioaren eginkizuna betetzea, bai toki entitatean, bai, kasua bada, menpeko enteetan ere.*

- *Toki entitateek, nagusiki 10.000 biztanle bitarteko populazioa duten udaletan, konponbidea ematea espedienteetan funtsezko betekizun edo izapideak ez betetzeagatik gertatzen diren egoerei, nagusiki kontratazioaren arloan.*

- *Behar adinako kreditua duten espedienteak behar bezala onestea.*

- *Aurrekontuaren exekuzio-oinarrietan aldez aurreko fiskalizaziorik gabeko espedienteen izapidetzean jarraitu beharreko prozedura erregulatzea.*

- *Erregelamendu bidez garatzea Foru Komunitateko tokiko sektorearen aurrekontuko lege-esparruan aurreikusitako barne-kontrolleko araubidea.*



**V. ALDERDIOROKORRAK****V.1. ESKATUTAKO INFORMAZIOA IGORTZEKO BETEBEHARRA BETETZEA**

Informazioa eskatu zitzaizen toki entitateak 348 izan ziren; horietatik, 272 udalak dira eta 76, berriz, mankomunitate eta elkarteak. Hurrengo taulak betetze-maila hori islatzen du:

Igorritako inkestak		Inkesta osoa	Ezezko ziurtagiria soilik	Erantzun dutenak	Erantzun ez dutenak
Toki entitate mota	Entitate kopurua	Guztira	Guztira	Guztira	Guztira
<b>Udalak</b>	<b>272</b>	<b>236</b>	<b>8</b>	<b>244</b>	<b>28</b>
<1.000	188	161	8	169	19
>1.000 <5.000	62	54	0	54	8
>5.000 <10.000	12	11	0	11	1
>10.000 <20.000	7	7	0	7	0
>20.000	3	3	0	3	0
<b>Mankomunitateak eta elkarteak</b>	<b>76</b>	<b>61</b>	<b>2</b>	<b>63</b>	<b>13</b>
<b>Guztira</b>	<b>348</b>	<b>297</b>	<b>10</b>	<b>307</b>	<b>41</b>

Ikusten denez, eskatutako informazio guztia bidaltzearen betetze-maila ehuneko 85ekoa da; ehuneko hiruk ezezko ziurtagiri bat baizik ez du aurkeztu, barne-kontrola nola egiten duten adierazi gabe; eta entitateen ehuneko 12k ez du erantzun.

**V.2. ERAGOZPEN-OHARRIK, ERAGOZPEN-OHARREN AURKAKO ERABAKIRIK, FISKALIZAZIORIK GABEKO ESPEDIENTERIK ETA DIRU-SARREREN KUDEAKETAN ANOMALIARIK EZ DUTEN ENTITATEAK.**

Ganbera honek egindako eskariari jarraituz, baldin eta eragozpen-oharrik egin ez bada, eragozpen-oharren aurkako erabakirik hartu ez bada, aldez aurreko fiskalizaziorik gabeko espedienterik onetsi ez bada edo diru-sarreraren kudeaketan anomaliarik ez bada, toki entitateek ezezko ziurtagiri bat igorri beharko dute, inguruabar hori adieraziz.

Toki entitateek informazio hori bi modutara eman dute: ezezko ziurtagiri baten bidez edo gai horiei galdetegiaren beraren bitartez erantzunez. Honako hau da bi informazio-iturri horiek batuta ateratzen den emaitza:

Toki entitate mota	Entitate kopurua	Ezezko erantzuna				Guztiak
		Eragozgozpen-oharrak	Eragozpen-oharren aurkako erabakiak	Fiskalizaziorik gabe hartutako erabakiak	Diru-sarreretarako anomaliak	
<b>Udalak</b>	<b>244</b>	<b>207</b>	<b>32</b>	<b>235</b>	<b>233</b>	<b>201</b>
<1.000	169	159	5	163	162	152
>1.000 <5.000	54	42	5	54	54	42
>5.000 <10.000	11	2	15	9	9	2
>10.000 <20.000	7	3	3	7	6	4
>20.000	3	1	4	2	2	1
<b>Mankomunitateak eta elkarteak</b>	<b>63</b>	<b>62</b>	<b>1</b>	<b>62</b>	<b>62</b>	<b>61</b>
<b>Guztira</b>	<b>307</b>	<b>269</b>	<b>33</b>	<b>297</b>	<b>295</b>	<b>262</b>

Taulako informazioa dela-eta honako hau aipa dezakegu:

- Kasuen ehuneko 88an ez da eragozpen-oharrik egin.

- Kasuen ehuneko 11n ez da eragozpen-oharren aurkako erabakirik hartu.
- Kasuen ehuneko 97an ez da aldez aurreko fiskalizaziorik gabeko espedienterik izapidetu.
- Kasuen ehuneko 96an, ez da diru-sarreretan anomaliarik jaso.
- Aurreko lau inguruabar horiek batera ez dira gertatu toki entitateen ehuneko 85ean; horietatik ehuneko 58 dagozkie 1.000 biztanletik behera duten udalei.

### V.3. TOKI ENTITATEEN BARNE-KONTROLEKO SISTEMA

Hurrengo taulan, egindako kontrolaren modalitateak erakusten ditugu:

Toki entitate mota	Erantzunak, guztira	Aldez aurreko fiskalizazioa							Kontrol finantzarioa
		Aitortutako eskubi-deak	Bete-beharrrak	Funts-mugimenduak	Kontu-hartzaitza Ordainketa-moduak	Ordainketaren kontu-hartzaitza materiala	Inbertsioen egiaztatzea	Diru-laguntzen egiaztatzea	
Udalak	236	211	220	205	220	209	210	214	0
<1000	161	146	148	136	148	135	143	142	0
>1.000 <5.000	54	50	54	52	54	55	54	55	0
>5.000 <10.000	11	7	9	8	9	10	6	9	0
>10.000 <20.000	7	6	7	7	7	7	5	6	0
>20.000	3	2	2	2	2	2	2	2	0
Mankomunitateak eta elkarteak	61	57	59	57	58	55	54	57	0
Guztira	297	268	279	262	278	264	264	271	0

Emitzek honako hau adierazten dute:

- Kontu-hartzaitzaren eginkizuna, oro har, aldez aurreko fiskalizazioaren bidez gauzatzen da, eta tokiko aurrekontu-esparruan eskatzen diren modalitate eta edukiak dauzka, aurreko taulan adierazitakoak.
- Iruñeko Udala da aldez aurreko fiskalizazioaren modalitatea baliatzen duen bakarra, zeren eta bera baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru legearen 248. artikuluan eskatzen den 50.000 biztanletik gorako populazioa gainditzen duen toki entitate bakarra. Modalitate hori honako hauek fiskalizatzean datza: kreditu egokia eta nahikoa badagoen eta gastua organo eskudunak proposatu duen.
- Toki entitate bakarrean ere ez da kontrol finantzarioaren eginkizuna betetzen. Eginkizun hori soilik Iruñeko eta Tuterako udalek baliatzen dute beren menpeko enteen gainean, eta auditoritzako kanpoko enpresen bitartez gauzatzen dute.

#### V.4. AURREKONTUEN ARLOKO TXOSTENAK

Hurrengo taulan aipatzen da zenbat entitateetan Kontu-hartzaitzak informatu duen aurrekontua onestearen, aurrekontu-aldaketan, aurrekontuaren likidazioaren eta aurrekontu-egonkortasunaren aurka:

Toki entitate mota	Aurrekontuak	Aldaketak	Aurrekontuaren likidazioa	Aurrekontu-egonkortasuna	Guztira
<b>Udalak</b>	<b>3</b>	<b>8</b>	<b>2</b>	<b>12</b>	<b>25</b>
<1000	3	4	2	8	17
>1.000 <5.000	0	4	0	1	5
>5.000 <10.000	0	0	0	2	2
>10.000 <20.000	0	0	0	1	1
>20.000	0	0	0	0	0
<b>Mankomunitateak eta elkarteak</b>	<b>2</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>5</b>
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>8</b>	<b>3</b>	<b>14</b>	<b>30</b>

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Informazioa igorri duten entitateen ehuneko 10 baino ez dira Kontu-hartzaitzak aurkako txostenak eman dituztenak.
- 1.000 biztanletik beherako udaletan egin dira aurkako txosten gehien, zeren eta aurkako txosten guztien ehuneko 83 baitira.
- Aurrekontu-egonkortasunaren esparrua betetzearena da aurkako txosten gehien eragin dituen, zeren eta egindako txosten guztien ehuneko 47 baitira.

#### V.5. EGINDAKO ERAGOZPEN-OHARRAK

Eragozpen-oharrak aurkeztu diren entitateak 38 dira: 37 udal eta mankomunitate bat. Hona hemen datuak:

Toki entitate mota	Toki entitateen kopurua	Egindako eragozpen oharren kopurua	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
<b>Udalak</b>	<b>37</b>	<b>153</b>	<b>8.139.183</b>	<b>11</b>
<1000	10	47	1.086.402	4
>1.000 <5.000	12	22	1.768.160	2
>5.000 <10.000	9	57	3.976.224	3
>10.000 <20.000	4	9	952.747	1
>20.000	2	18	355.650	1
<b>Mankomunitateak eta elkarteak</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>1.566</b>	<b>0</b>
<b>Guztira</b>	<b>38</b>	<b>154</b>	<b>8.140.749</b>	<b>11</b>

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- 154 eragozpen-ohar aurkeztu dira, 8,14 milioi euro egiten dutenak; eragozpen-oharren kopuru eta diru-zenbateko handienak 10.000 biztanletik beherako populazioa duten udaletan biltzen dira, nagusiki 5.000 eta 10.000 biztanle bitarte dituztenetan.
- 154 eragozpen-oharretatik, ehuneko 50 bost entitatek egin dituzte; beste 50a, berriz, gaineko 33 entitateen artean banatzen da.
- 20.000 biztanletik gorako populazioa duten hiru toki entitateetatik, batean ez da eragozpen-ohar bakarra ere aurkeztu. Beste biei dagokienez, batean eragozpen-ohar bat egin da, eta beste batean, berriz, 17 eragozpen-ohar.

- Honako hauek dira haien zergatiak edo arrazoiak:

Eragozpen-oharren arrazoa	Zenbat	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
Funtsezko diren betekizun edo izapideak espedientean ez egotea	62	4.735.643	0
Kreditu nahikorik eza	30	2.324.380	2
Ordenamendu juridikoaren aurkako beste ekintza batzuk	40	804.900	7
Egiatagiritan irregulartasunak egotea	18	270.310	1
Arrazoa ez aipatzea	3	5.048	1
Obren, horniduraren eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik heldutako eragozpen-oharra	1	468	0
Proposatu kreditua egokia ez izatea	0	0	0
Ordainketa-aginduak eragin zituzten ekintzetan fiskalizaziorik ez egotea	0	0	0
	<b>154</b>	<b>8.140.749</b>	<b>11</b>

Egindako eragozpen-oharren arrazoi ohikoena da, lehenbizi, espedientean funtsezko betekizun edo izapideak falta izatea; izan ere, arrazoi hori dute egindako eragozpen-oharren ehuneko 40k (guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko 58 egiten dute). Bigarren tokian, kreditu nahikoa ez egotea dago: arrazoi hori aurkitzen da eragozpen-oharren ehuneko 19an (guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko 29).

- Eragozpen-oharrak honako arlo hauei buruzkoak izan dira:

Kudeaketaren arloa	Zenbat	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
Kontratazioa	64	6.677.670	2
Besterik	33	869.048	5
Diru-laguntzak eta laguntza publikoak	21	466.327	1
Langileak	28	95.919	1
Diru-sarrerak	6	22.834	2
Gaiaren aipamenik ez	2	8.950	0
Likidazioa	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>154</b>	<b>8.140.749</b>	<b>11</b>

Eragozpen-ohar gehien kontratazioaren arloa dela-eta aurkeztu dira: egindako eragozpen-ohar guztien ehuneko 42 eta eragozpen-oharren guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko 82 dira.

## V.6. ERAGOZPEN-OHARREN AURKAKO ERABAKIAK

Hurrengo taulan, desadostasunak Kontu-hartzaitzaren irizpidearen aurka ebatzi diren erabakien kopurua eta haien diru-zenbatekoa ematen ditugu:

Toki entitate mota	Erabaki kopurua, guztira	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
<b>Udalak</b>	<b>121</b>	<b>4.087.443</b>	<b>6</b>
<1000	42	1.012.848	3
>1.000 <5.000	17	1.747.217	0
>5.000 <10.000	42	974.933	0
>10.000 <20.000	6	24.143	3
>20.000	14	328.301	0
<b>Mankomunitateak eta elkarteak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Guztira</b>	<b>121</b>	<b>4.087.443</b>	<b>6</b>

Bistan da eragozpen-oharren aurkako erabakiak 10.000 biztanletik beherako populazioa duten udaletan biltzen direla; nagusiki, 1.000 eta 5.000 biztanle bitarte dituztenetan.

Honako hauek dira eragozpen-oharren aurkako erabakien kopurua eta diru-zenbatekoa, arau-hausteen edo zergatien arabera sailkatutik:

Arau-haustea/arrazoia	Erabaki kopurua	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
Kreditu nahikorik eza	26	2.208.990	1
Funtsezko diren betekizun edo izapideak espedientean ez egotea	48	967.570	0
Beste arrazoi batzuk	32	752.638	4
Egiaztagirietan irregulartasunak egotea	12	152.729	0
Arrazoia ez aipatzea	2	5.048	0
Obren, horniduraren eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik heldutako eragozpen-oharra	1	468	0
Proposatu kreditua egokia ez izatea	0	0	0
Ordainketa-aginduak eragin zituzten ekintzetan fiskalizaziorik ez egotea	0	0	1
<b>Guztira</b>	<b>121</b>	<b>4.087.443</b>	<b>6</b>

Eragozpen-oharrak eragin dituzten arau-hauste edo zergatien artean, aurkako erabakien portzentaje handiena espedientean funtsezko betekizun edo izapideak falta izatearenak egiten du – ehuneko 40–, baina kreditu nahikorik ez egotearena da garrantzitsuena guztizko diru-zenbatekoari erreparatuz gero; izan ere, guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko 54 egiten dute arrazoi hori dutenek.

Hurrengo taulan ematen dugu aipatutako erabakien sailkapena, kudeaketa-arloaren arabera:

Kudeaketaren arloa	Erabaki kopurua, guztira	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
Kontratazioa	52	2.855.570	0
Besterik	30	788.249	3
Diru-laguntzak eta laguntza publikoak	15	397.480	0
Langileak	18	34.359	1
Zehaztu gabeko gaia	2	8.950	0
Diru-sarrerak	4	2.834	2
Diru-bilketa	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>121</b>	<b>4.087.443</b>	<b>6</b>

Ikusten da kontratazioaren arloan biltzen direla nabarmen Kontu-hartzaitzak egindako eragozpen-oharren aurkako erabakiak.

Hurrengo taulan zehazten ditugu desadostasunak ebazten dituzten erabakien kopurua eta diru-zenbatekoa, haiek hartu zituen organoaren arabera sailkatutik:

Erabakia hartu duen organoa	Erabaki kopurua	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
Osoko Bilkura	50	1.344.824	5
Lehendakaria	67	2.723.182	0
Gobernu Batzordea	4	19.437	1
<b>Guztira</b>	<b>121</b>	<b>4.087.443</b>	<b>6</b>

Aurkako erabakiak V.5 apartatuan aztertutako eragozpen oharrekin lotuz gero, honako hau ikus dezakegu:

- 154 eragozpen-oharretatik, aurkako 121 erabaki hartu dira –ehuneko 79–; horrenbestez, kasuen ehuneko 21ean, kasuko organo eskudunak ez du aurkako erabakirik hartu, eragozpen-oharrak onartu ondoren.
- Eragozpen-oharretan kuantifikatutako 8,14 milioi euroko zenbatekotik, 4,08 milioi egiten duten aurkako erabakiak hartu dira: guztizkoaren ehuneko 50 da hori.
- Aurkako erabakiak 10.000 biztanle bitarteko populazio tartean biltzen dira, eta 1.000 biztanletik beherakoetan eta 5.000 biztanle bitartekoetan gertatzen da ia ehuneko 100ean eragozpen-oharren aurkako erabakiak hartu direla.
- Bereziki aipagarria da kreditu nahikorik ez egoteari buruzko eragozpen-oharrak direla-eta aurkako erabakiak hartu direla kasuen ehuneko 95ean.
- Kontratazioan oinarritutako eragozpen-oharrak direla eta, berriz, aurkako erabakiak hartu izan dira kasuen ehuneko 43an; diru-laguntzei buruzko eragozpen-oharretan, berriz, kasuen ehuneko 85ean hartu dira aurkako erabakiak.

#### V.7. ALDEZ AURREKO FISKALIZAZIOA EGIN GABE IZAPIDETUTAKO ESPEDIENTEAK

Hurrengo taulan ematen dugu, entitate-motaren arabera sailkatuz, alde zuzeneko fiskalizazioa egin gabe –hura aginduzkoa izanik ere– izapidetu diren espedienteen kopurua, bai eta haien diru-zenbatekoa ere:

Toki entitate mota	Espediente kopurua	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
<b>Udalak</b>	<b>4</b>	<b>10.102</b>	<b>3</b>
<1000	1	0	1
>1.000 <5.000	1	10.102	0
>5.000 <10.000	1	0	1
>10.000 <20.000	0	0	0
>20.000	1	0	1
<b>Mankomunitateak eta elkarteak</b>	<b>1</b>	<b>35.500</b>	<b>0</b>
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>45.602</b>	<b>3</b>

Hurrengo taulan ematen dugu espediente horien sailkapena, kudeaketa-arloaren arabera:

Kudeaketaren arloa	Espediente kopurua	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
Kontratazioa	2	45.602	0
Langileak	0	0	0
Diru-laguntzak eta laguntza publikoak	0	0	0
Diru-sarrerak	0	0	0
Diru-bilketa	0	0	0
Besterik	1	0	1
Zehaztu gabeko gaia	2	0	2
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>45.602</b>	<b>3</b>

Ikusten da aginduzko fiskalizazioa egin gabe izapidetutako espedienteen kopurua eta diru-zenbatekoa ez dela nabarmenezkoa, zeren eta toki entitateen ehuneko bati gertatu baita, eta soilik kontratazio-arloari eragin baitio.

## V.8. DIRU-SARREREN ARLOKO ANOMALIA NAGUSIAK

Diru-sarreretako anomalia nagusien kopurua eta diru-zenbatekoa, diru-sarrera motaren arabera sailkaturik, honako taula honetan ageri dira:

Diru-sarrera mota	Guztira	Diru-kopurua	Diru-kopururik ez
Diru-laguntzak	4	81.000	0
Ondare bidezko diru-sarrerak	1	43.750	0
Besterik	3	38.000	1
Inbertsioak besterentzea	1	11.500	0
Tokiko zergak	3	4.001	2
Tasak	2	0	2
Salneurri publikoak.	1	0	1
Transferentziak	0	0	0
Hirigintza-operazioak	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>15</b>	<b>178.251</b>	<b>6</b>

Anomaliak detektatu diren diru-sarrera-nagusiak jasotako diru-laguntzei eta ondare bidezko diru-sarrerei dagozkienak dira. Tokiko zergei dagozkienek, berriz, guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko bi baizik ez dute egiten. Igorritako anomalien ehuneko 40 kuantifikatu gabe badaude ere, haien kopurua ez da garrantzitsua, zeren eta toki entitateen ehuneko bostean baizik ez baitira gertatu.

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

**1. ERANSKINA INFORMAZIOK BIDALI EZ DUTEN TOKI ENTITATEEN ZERRENDA**

Arano  
Arruazu  
Azuelo  
Cabanillas  
Caparroso  
El Busto  
Eslaba  
Esprontzedea  
Fustiñana  
Goñi  
Irañeta  
Leotz  
Lodosa  
Los Arcos  
Petilla Aragoi  
Gares  
Santakara  
Torralba del Río  
Uharte Arakil  
Urdazubi  
Villamayor de Monjardin  
Zugarramurdi  
Beire eta Pitillasko Langileriaren Mankomunitatea  
Uharte eta Eguesibarko, Esteribarko eta Arangurengo Zerbitzuen Mankomunitatea  
Irantzu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea  
Allo, Arellano, Arronitz, Deikaztelu eta Leringo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
Los Arcosko Eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
Etxarri Aranatz Eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatea  
San Frantzisko Xabierkoa Egoitzaren Mankomunitatea  
Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
Errege Bardeako Komunitatea  
Iratiko Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea  
Aralarko Batasuna

Abaigar\*  
Baztan\*  
Bidankoze\*  
Etxarri Aranatz\*  
Imotz\*  
Lakuntza\*  
Erriberako Mankomunitatea\*

\* Informazio osatu gabea bidali duten toki entitateen zerrenda